



# aparejadora

EDORTA JIMENEZ

E  
l  
k  
a  
r  
r  
I  
r  
a  
k  
u  
r  
r  
i  
z

BOOKTEGI

EDORTA JIMENEZ

# aparejadora

E  
l  
k  
a  
r  
r  
I r a k u r r i z



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

Aparejadore titulatu naiz, ez dut esango bikaina, oso ona ez dakit, zabarra ez behintzat, baina ez da hori koska. Lana bitarteko hustzat hartuta bizitzan objektibo nagusia egunean egunekoaz gozatzea izan dut. Beti. Unibertsitate urteak, estropada eta kartoi bandaren garaiak, ezkondu ostekoak, tartean seme bien haurdunaldiak eta jaiotzak, batez bestekoan gozamenekoak izan ziren.

Eta halako batean dena okertu zen.

Hasierara joz, arkitekturarako nire bokazioa goiztiarra izan zen, erromantikoa, gaztetxo baten inozokeriak puztua. Txikitan eta gero nerabezaroan nola bizi nituen, nola baina, gure sorterriko jauregi ederra, txalet kolonialak, dorretxeak, kasinoa, portuko kale estuetakoak, ontziolak eta beste, gehienak gaur egun suntsituak edo bestela lotsagabe eraldatuak! Atilarenak ez zuen oraingo negozio-egertzitoek suntsitzen ari direnaren ezta laurdena ere suntsituko.

Eraikinok umetatik jada neure hezurretan bizi nituela esan zitekeen, zer gertatzen zitzaidan artean jakitera iritsi gabe. Konsekuentzia? Arkitekto izan nahi nuela.

Halako ikasketarik hemen ez, ezta ere etxean dirurik Madrilera joateko, Burgosen arkitekto-laguntzaile, aparejadore alegia, horixe egitea erabaki genuen denon artean amak eta anaia arrebo. Ordurako aita hila zen eta, etxean halaxe hartzen genituen erabakiak. Aho batez. Beraz, Burgosera. Zenbait ikaskidek bat eginda pisua alokatu genuen. Jabea militarra omen zen, nik neuk ez nuen hura inoiz ikusi.

Burgos militarra!

Hango eraikinek, militarren kuartelek eta etxe blokeek, gure pisua halako batean zegoela argitu behar dut, maiz zurrundu egiten zidaten gorputza. Hezurren orde burdinak baneuzka bezala. Orain begiratuta esango nuke hartan erein zela nigan depresioren hazia, buruko terrazetan tarteka lore beltzak ernalarazten dizkidana.

Azken hori alde batera, karrera amaitu nuenerako argi neukan txikitatik gertatzen zitzaidana. Joera nuen eraikinak somatizatzeko, aldika eta era gorabeheratsuan somatizatu ere. Eskerrak Burgosekoa hiru urtez baino izan ez zena. Baziren zorionez munduan barna alaitzen zidaten bestelako eraikinak. Burgosen bertan, katedrala eta errebala ez ezik, hiriaren gaineko gaztelua ere. Sarritan joaten nintzen hara, haren harmoniekin gozatzera eta bide batez gautu ahala inguratzen ziren emakumezko kuku inuzenteak egitera, diot orain, orduan ez neukan oso argi. Hura alde batera, sorterrian baziren txikitan ezagutu nituenak, gehienak ordurako desagertuak ziren arren, berriro diot. Tira! Artean ez nekien zenbat arkitekto zeuden, tekniko nahiz oso, soberan gure munduan. Neu beste bat, karrera amaitu nueneko.

Dena dela, orain arte jakin dut hala edo nola bizimoduari buru ematen. Aparejadore lanetan ezin izan dudanetan, hau da, gehienetan, marrazkigile edo nik dakit zer bestetan. Karrera amaitu osteko hileetan, esaterako, tabernetan zerbitzari.

Zortez, portuan orain erdi jausita dagoen etxera lehenengoz agertu nintzenean aldi baterako aparejadore kontraturik nengo. Ofizioan oso gora iritsi den arkitekto baten estudioan, ez dut izenik esango, bai osteraren aitaita eta aita ere arkitektoak izan zirela, eta eskola egin dutela eta horri segida emateko semeetako bat ofizio berekoa. Harena bai arrakasta,

lotsa pittin bat ere eragiterainokoa. Pittin horren aringarritzat edo, nolabaiteko mezenasgoa praktikatzen zuen, eta praktikatzen segitzen duelakoan nago. Karitate kristauren aldaera bat azken finean.

Lagun baten beste lagun batez hari nire izena gomendaturik aldi baterako hartu ninduen, haren eskolako talentudun beste dizipulu bat bihur nintekeelakoan. Halaxe, lehen-lehen egunetik niri marrazkilari bikain iritzirik, begiko gertatu nintzaion. Laurogei urteak gainditurik estudioan denaren buru segitzen bazuen ere, marrazteko gaitasuna galdua zuelako beharbada. Esku-dardarak eta guzti hori. Adinaren ajeak.

Begikotasun hari esker igaro nintzen marrazte hutsetik txostenak egitera. Ze, bai, gure lanbidean argazkiak ezinbesteko izaten badira ere, "hobe marrazkiak" zen haren leloetako bat. Lan egiteko modu eta arkitektura klasikoan zalea zen, ikustea baino ez dago eginak dituen eraikinak, tartean zenbait arrantzale portutan burutu dituen erreforma integralak. Elantxoben eta, Bermeon eta, Lekeition eta. Azken batean haren klasikotasunaren kontzeptuaren barruan langileen etxe apal xumeen bizitoki historikoak ere sartzen zirelako. Hori bai, ni harekin izan nintzen aldian uko egiten zien baserri klasikoak txalet mozorroto bilakarazteko eskaintzei.

-Neobasko horiek ondare hori ere suntsitzen ari dira.

Halaxe etorri zitzaidan ezustean harrapatu ninduen enkargua.

-Zure herriko portuan da. Bertakoak kexu dira, ondoan egiten ari diren hotelak euren eraikina behera botako ez ote dien beldurrez. Orain urte erdi bat, artean zu hemen ez zinela, gurera jo zuten, eraikina arkitektura-ondare bezala sailkatua dela eta, holakoak biziberritzeko laguntzetara aurkezteko txostena osatzeko eskatuz. Egin egin genien, eta gaur arte. Orain berriz hotel madarikatuaren mehatxua azaldu didate, telefonoz. Turismo deabrua! Zoaz, eta ekarri txostena. Ez ahaztu dena zehatz marraztea, bai?

Halaxe sartu nintzen kanpoz jaiotzatik ezagutzen nuen eta orain erdi jausita dagoen etxe horrexetan lehenengoz.

Eraikina erdi jausita dagoela diot; goitik beherako kanpoko pareta nagusietako erdi bat eta beste baten beste erdi bat edo, atzealdekoa, horiexek dira behera etorri zaizkionak. Portu begian duen fatxadak, nagusia, eta alboko eraikinari itsatsiak, hotela bihurtu nahi duten horrekin bitarteko horma dena, zutik irauten dute. Teilatu zati bat ere jausita dago. Karreran marrazten ikasi genituen eraikin-ebakidura haietako bat bezala lotu da. Edo edonork ulertzeko moduan esanda, etxearen oraingo irudia panpina-etxeenaren tankerakoa da.

Panpinarik ez han, ordea, eta bistan geratu diren altzariak fantasiakoetatik urrun, beharbada zuzenagoa litzateke esatea esku gaiztoren batek hiru pisuen ikuspegia eskaini nahi izan baligu legez lotu dela eraikina. Nabarmenena solairuen arteko eskailera pikoa egin zait, eta horrek areagotu egin dit eraikinak somatizatzeko dudak aldizkako joera, nire patologien artean bitxia. Nola konpontzen ziren etxe horietan bizi ziren zaharrek eskaileroan gora eta behera ibiltzeko, nirea bai sufrimendua haiek zapaldu nituen lehen aldian. Ez orain agirian ikustean sentitu dudanaren bezainbestekoa inondik ere. Marrazketarako dudak trebetasuna joera horrexeri zor diodalakoan nago. Edozein eraikinen marrazkiak egitean hark bere aldetik zerbait itsasten didala eta nire aldetik hari bizi-hatsa ematen diodala sentitzen dut. Horri enpatia esaten

diote, baina, nire kasuan hori baino ezohikoa da, badiot, eraikinak somatizatzeko “aldikako joera patologikoa daukat” psikiatraren hitzetan, hau da, niregan haragitzeko, nire gorputzaren parte egiteko. Atseginez batzuetan, minez besteetan. Indiferente gutxik uzten naute. Eskailera horiek inondik ere ez.

Eskaileroek esku biko hiru solairu lotzen zituzten, beraz, sei etxebizitza ziren, lehenaldian esan beharko, taxuz eta tamainaz seiak elkarren berdinak. Portura begira sukaldea, baldosak norberaren buruaren pareraino, sukaltarria, arasak, jan-mahaia eta aulkiak, hozkailua, ikuzgailua; komuna, dutxarrik edo bainuontzirik gabea; pasilloa, estua; lotarako koartoak, hiru, nanoak. Elementu guztietako goietan eskegita hortxe diraute bonbillek, horiek ere biluzik, kableetako batzuk paretetatik erdi solte, agerian, eskeleto huts, nigan tristura kosmikoa eraginez. Denak ematen du antigoalekoa, hormetako paperek batez ere. Gorengo solairuko ezkerreko etxebizitzako koartoetako batek izan ezik. Orain kaletik ikusten da. Paretak eta sabaia iluntzeko itsaso kolorekoak dira eta iruditxoak ditu marrazturik; ilargi moroa eta izarrak; oraindik hantxe eskegita dirau vintage lanparak. Horixe obszenoena, orain etxeari begira jar litekeen edozeinek galde egin lezakeelako,

Itsaso koloreko hori, izarrak eta dituen?

Eta norbaitek galderaren haritik logela hori norena zen argitu lezakeelako,

Etxeko alaba bakarrenarena segurenik.

Eta horra hor Goiuriren eta bion arteko harremanaz hitz egiteko aitzakia ederra, batez ere edozein huskeriaren hariari tiratuz sekulako pelikulak asmatzen dituztenentzat. Hau da, herriko gehienentzat.

Obszeno deritzot ba oraindio etxearen zati eroria estaldu ez izanari. Hala iriztea nire somatizaziorako aldizkako joerarekin bat dator. Ez dakit beste inori niri eragiten didana eragiten ote dion. Baiezkoan zein ezezkotan, noiz arte utziko dute hartan bizi izandakoen biografiaren nahiz izaeraren parte handi batzuk, Goiuriren ameslaritasuna esaterako, edonork ikus eta interpreta ditzan?

Asegurukoak etorri arte ziurrenik. Horren ostean habetu egin beharko dute, euts diezaion. Eta gero gerokoak. Sarezko zein olanazko estaldurak jartzea eta auskalo zer beste. Bitartean ez beza euririk egin, arren!

Goiuri bera ez dut uste agertu denik. Ikusi behintzat ez dut ikusi. Gurasoak bai. Urrundik. Ikusi ez nautelakoan nago.

Hobe.

Etxearen irudiak bolo-bolo dabilta. Gertatua eskandaluzkotzat joz horra iruzkinak udalaren kontra, hotelaren jabearen aurka, hau, hori eta bestea. Eta gero, hauteskundeak datozenean, kaka!

Desaktibatu egin dut balkoi merke hori.

Trapu zikinen beste kakoa, Facebook, ez daukat.

Gainerako halakoen kasuan ez dut ez eta izanak jakin nahi ere.

Androideen mendu bizi gara.

Gaur ez naiz portura joango. Ezin izango nuke halako obszenitaterik begien aurrean zeharo larritu barik izan.

Jagi ere, berandu jagi naiz.

Insomne, nire bizitza erreparatzeaz gogaiturik eta frakasoaren sentrazioak gainez eginda, buruan obszenitate hitzak mailukadak jotzen hasi zaidanean egin dut ohetik jauzi. Hamarrak aldera.

Te gorri arin bat prestaturik, hari zurrupaka sukaldeko lanei ekin diet. Horiexek direlako ezagutzen ditudanik eta zeregin sendagarrienak. Piluletara ez naiz itzuliko. Hautsetara ezta ere. Psikiatrarekin alferrik litzateke, utzia dut aspaldi.

Hozkailukoak eta potoen ilarakoak luzaz aztertu eta haztatu ostean erabaki dut; menestra. Bitartean garagardo latak neuri hizketan bezala sentitu ditut.

Ei! Gure aparra zure sosegua!

Gogoia egin zait balkoi merkeari kuku bat egiteko.

Ez dut amore eman, ez batean eta ez bestean.

Hamabi eta erdiak jota lata bati estalkia kendu diot.

Bai sosegua aparrak! Buruak ematen izan ez didana, obszeno hitza hartatik kendu ezinik eman dut-eta horrainoko tartea.

Hitza estetika irakasleari hartu nion, aspaldi. Gaztelaniaz. Euskaraz ez dut hoberik ezagutzen.

“Obsceno es lo ofensivo al pudor”, esaten zigun. “Jatorriz, antzerkian erabiltzen zen, esaten zigun, atzealdean, eszenaren beste aldean dagoena adierazten du; hau da, erakutsi beharra ez dagoena erakusteari deritzogu obszeno. Eta jakin ezazue, badira eraikin obszenoak; hala barruz nola kanpo. Arkitekturan obszenitatea debekaturik beharko luke baina, begiratu Pompidou zentroari. Hesteen iraultza!”

Barre egiten genuen. Burura etorri, ostera, hitzak antzerkian duen esangura barik, sexuarekin duen zerikusia etortzen zitzaigun. Denoi. Kasik pornografiko hitzaren sinonimotzat jotzen genuen. Ba hark zioena zuzena zen. Eraikinak orain, besteak beste, nire barru-barrukoak modu obszenoan erakusten dituela sentitzen dut. Haren parean pasatzen direnei aldarrika esaten dizkielako nik hartan bizi izandakoak.

Kontzeptuak azkenean Burgoseko egunetara eroan nau. Haietan ere idatzi egiten nuen, ezinbestez, kalea parranda egunetan izan ezik besteetan, gaztelura egiten nituenetan salbu, gogoko ez nuelako eta etxera noiz itzuliko bizi nintzelako.

Idaztea nire buruari sosegua emateko nerabiltzan terapia bideetako nagusia izaten zen, gordeta dauzkat hartan idatzi nituen egunekoak, ez ditut berrirakurri nahi. Zera, orduan gaztelaniaz idazten nuen, euskaraz egiten dut orain. Ez dut esan, baina, zergatik hartu ninduen ez dakidan arkitektoak, mezenasgoz ala karitatez?, Frankismoan aldi batez motibo politikoengatik kartzelan egona bera, bulegoan euskaraz mintza gintezen nahi izaten zuen. Jakintza Baitha akademiako kidea zen eta, pentsa haren harrikada. Berari zor diot, besteak beste, subjuntiboaren erabilera.

Goiurik ez dit deitu, neuk ere ez diot deitu. Deitzea berari dagokiola deritzot. Mingarria da isiltasun hau. Beharbada What sapp bidez mezuren bat bidali dit, ez dut begiratu. Deituko du, deitu behar badu.

Hark ez, etxe erdi jausiaren jabeetako beste batek deitu dit. Goiuriren osabak, arrantzale erretiratua bera. Beste familiak eta Goiurik berak legez, aspaldi zeukan utzita etxea.

-Egun on. Goiuri zure lagunaren osabie nai, ba'kizu gure etxearena, ezta?

Konfiantza tonuak loba eta gu bion arteko zein zabaldurik dabilen berretsi dit.

Esan diot ez nagoela arkitekto karitatetsu haren estudioan eta ez daukadala ezer egiterik. Dena dela, kontua zertan den azaltzen utzi diot.

Euskara eta gaztelania artean batetik bestera ageriko logikarik gabe jauzi eginez azaldu dit eurena legezko arrantzale familiena izandakoa ondoko eraikina hotel bihurtzeko lanetan dabilela horren jabe berria, horretan ezer berririk ez. Niretzat berria izan da ostera jabea udal lizentziak eta ondorea babesteko arauak diotenaren gaintik egiten ari delakoa. Balkoiak aipatu dizkit, horiekin bereziki haserre. Oraintsu arte egon direnak baino handiagoak izango omen dira.

Arkitekto haren estudioari deitzeko esan diot.

Kalakan segitu du.

Eutsi egin diot.

Errematekoa esan didan arte.

-Eta ganera hotelekoa ez da partidukoa!

-Ea ba zorrea daukazuen -eten egin diot deia, amorruek gainez eginda.

Kostatu zait nire onera etortzea.

Tartean, Goiurik osabaz behin esandakoa gogoratu zait.

-Osaba mutilzaharra zinegotzia da eta hala ere ezin ezer egin.



Logelari agertzen hasiak zitzaizkion arrakalak, pitzadurak, horiexek seinalatuz eta aldi berean esan zidan. Ikusiak nituen, eta somatizatuak. Alabaina, ez nituen txarrerako somatizatuak, onerako baizik.

Hari "Goiuri efektua" esan niezaiokeen.

Gure gorputzak ere ez dira etxe perfektuak, eta zer?, esaten nion nire buruari. Zerez eginak diren da inporta duena; haragiz eta hezurrez, azalez eta mamiz, begiz eta ilez, odolez, luzea litzateke materialen zerrenda. Dena dela, humanotasunaren aldetik inportanteena, zerez eginak baino, zertarako eginak diren etxeak, horixe da; ametsetako hareak zapaltzeko eta desiorako behar den guztirako.

Maite nituen hango arrakalak. Humanoak, oso humanoak ziren.

Etxe humanoak behar ditugu.

Ikea ez dut maite.

Patek eta biok hipotekaturik erosi genuen etxeko altzariak eskuz eginak ziren. Damurik, hila da zurgina, Anton Mendizabal gizon dotore, jakintsu eta euskaldun fina. Gainbeheraren beste sinbolo bat.

Goiurirena bazen humanoa. Hain humanoa ze, antzina pirata etxea izan ez ote zen galdetu izaten zidan, zeremonietan hastear.

-Herri honetan ez da inoiz piratarik izan, kortsarioak asko baina piratarik ez -erantzuten nion.

Magia hutsez inauterietarako legezko halako pirata-zapi bat agertzen zitzaion eskuetara. Begiak estaltzen zizkidan.

-Ba orain bada bat.

Ziurrenik irudi gehiago eskegi dituzte androideen mendeko balkoietan, ez daukat begiratzeko gogorik, ezta beharrik ere. Gaur zuzenean ikusi dudanagatik mingarria da etxearen egoera. Ze, bai, ikustera lehenengoz joan nintzenetik astebete pasata, goizeon urrundik begiratu diot; portuko beste aldetik.

Oraindik ez dute estaldu.

Zorionez tartean ez du euririk egin. Egingo du. Ez da hori baina kontua, ala bada? Hobe ikustera joan ez banintz, ezta urrundik ere. Insomnioa nolabait gainditzen hasi naizenean, ni bai tentela.

Loak hartu ezinezko tartetean nire burua gogoratzen dut, Goiurirekin han, sukaldean, arkitekto mezenas karitatetsuak hara joateko agindu zidan lehenengo hartan. Eta gerokoetan ere. Orain itsaso kolorez pintaturik ageri den gela polito apainduan, artean hori ere paperez estalia zela, pasilloan eskutik erdi biluzik, komunean, eskaileretan gora eta behera. Horietako

bonbillak ere agerian daude, soil eta apal, elektrizitatea miraritzat jotzen zen garai baten lekuko. Hirugarren solairu hartara iristeko behar izaten ez nituen bonbillak dira. Pospoloekin moldatzen nintzen. Gaueko itzaletan beste itzal izatearren.

Ondarea zen eraikina, bai, eta hartako altxorra Goiuri. Zegoeneko han bizi zen bakarra, alabari aitarekin txanda tokatzen ez zitzaionetan. Horrelakoetan bi izaten ziren, eta banekien tabua zena han hirugarren bat izatea, izan ni nahiz izan beste edozein gizon.

Banandu ostean itzuli zen jaiotetxea zuen hartara, alabaren ardura bere gain hartuta.

Ordurako han beste inor bizi ez zela.

Besteak, haren gurasoak tarteko, etxe berriagoetara joanak ziren, ezkondu zenean berak egin bezala. Denak zeuden itzuliko zirelakoan, behin eraikina eraberriturik. Horretarako erakundeen diru-laguntzak behar, ordea. Lehen urratsa, hura dena ondarea zela egiaztatzearena, egina zen, lehen esan dudan moduan. Alabaina txosten hari erantsi beharrekoa zen hotelak eraikinari egiten zion mehatxuarena. Horra zertan bidali ninduen hara arkitekto karitatetsuak. Goiuri enera.

Egia esanda, etxe orain erdi erorian hartu ninduenean ez nekien haren izena Goiruri zenik.

Arkitektoen ametsetakoa dirudi goiuri hitzak. Zera, han goian eraiki genezakeen zorionaren uria, jainko-jainkosen aginduz egina, geuk geuretzat. Amets ustela, badira eta Goiuri deritzen auzuneak, izena gorabehera beste edozein bezain arruntak

Izena ez, banekiena zen nola begiratzen ninduen, nola begiratzen nion. Begiratzen ninduenetan begi bietatik kable bana luzatzen zidan, eta ezta kableok muturrean entxufea bazeukaten ere; ninietan iltzatzen zitzaizkidan, eta ez dakit energia kentzen zidaten, kendu, ala eman egiten zidaten, eman. Karranpak sentitzen nituen. Hori ere somatizazioa, bai.

Jakina denez, elektrizitatearen printzipio behienenetakoa da korrontea izan dadin potentzial diferentzia bat behar da, eta, hura ni baino hamar urtetik gora gazteagoa zela esanda ez daukat zertan besterik azaldu.

Dena dela elektrizitate haren iturria ez zen huts-hutsik urteen aldea.

Tabernetako argi-joko tranpatietan txinpartak izaten zituen dir-dir ninietan, eta nireetan ere halakoak izango zirelakoan nago, tximist kolpeak sentitzen nituen eta.

Ekaitz elektriko haiek artean alkohol-zulo barruetan erretzearen debekuaz paso egiten zuten lekuetan izaten baziren ere, ez zen keagatik niri negarrak kasik kanpora egitea. Nor zen, ez neukan ondo lokalizatuta. Adinaren horrexegatik. Banekien bai ume baten ama zena, egunetz ama hau eta ama bestea esaten zion neskatotxo batekin ikusi izaten nuelako. Susmatzen nuen ordurako aitarekin ez zegoela.

Bada, egunez ere elektrizitatez kargatzen ninduen. Txinpartak-eta hain ikusgai agertzen ez zituen arren gorputzaren taxu hutsarekin.

Sentitzen nuen bateriak nituela gorputzeko atalen baten.

Non baina? Gibelean? Giltzurrunetan akaso?

-Aurrera! -esan zidan, atea lehengoz zabaldu zidanean-. Goiuri naiz.

Jimmy naiz esateko izan nintzen, lagunek halaxe esaten didate eta. Aurrea hartu zidan.

-Jimmy, ezta?

Ez dakit nondik nora hasi zen. Ezta zenbatez iraun zuen ere.

Dakidana da goiz erdia zela eta sartu bezain laster hasi nintzela pasilloko arrakalak erdi somatizatzen. Ez erabat, Goiuriren hurbiltasunak ez zidan uzten. Zer egin, nondik hasi ez nekiela sukaldera laguntzeko esan nion.

Sukaldeko leihotik portua ikusten zen, kirol ontziz josia, zuriak gehienak, horretan ezer berririk ez. Talaia hartatik ostera argiro jabetu nintzen beste fenomeno artifizial batez: galdua zuen hark arrantzontziek aspaldi ematen zioten kolore aniztasun ederra.

Burua horretan nuela gerria ukitu nion, pittin bat bazterrera egin zezan, barkatu! esanez batera.

Ukitu hark etengailuarena egin zuen.

Elektrizitate pilatuak bazuen nora jo, zeri ekin, zertan lan egin.

Biok zutik, hark leihoari lepoa emanaz ipurdia sukaltarrian eusten eta begietan finko nireetan konektaturik, bildutako elektrizitate karga hura guztia sukaldean bertan hustuko zitzaidala sentitu nuen. Hark ere bere aldetik beste karga bat zuela gogoan hartu gabe. Koarto txiki haietako batera eroan ninduen. Egun batzuen buruan iluntzeetako itsasoko kolorez margotu nion. Ilargi moroa eta izarrak, paper itsasgarritzakoak, berak jarri zituen.

Ezkondutik ginen ermitatik Pat eta biok besotik irteteko une berean, sast! Zerbait ederra eraikitzen hasia nintzela sentitu nuen, argiro, zeremonia antzeztu zuen Txabi fraidearen hitzak gogoan. "Ezkontza zorionaren etxea duzue", esan zuen, nire lanbidea zein zen jakitun zegoelako ziurrenik. Paten gurasoek kontratatu zuten eta, esango zioten zerbait.

-Hirurentzako etxea, pentsatu nuen, egun hartan lehenengo semea jada bidean zetorren eta.

Eguerdiko eguzki betearen aurrean, ezkerretara itsasadarra marea goran eta aurrean gonbidatuak guri loreak jaurtitzen, zoriontsu izan nintzen. Ingurua somatizatu nuelako?, datorkit orain zalantza burura.

Berdin dio. Zoriontsu. Patriziak eta biok elkar ezagutu genuen gauean baino zoriontasunez hagitz aseago. Harik eta gu hiruron etxearen balizko ezaugarrien ideia zoroa bururatu zitzaidan arte.

“Edozein etxeren iraupena hura egina den osagarrien gaitasunen mende dago.”

Tarte batez Pati kasu egin beharrean gaitasun horietaz gogoratu nintzen.

Temperatura aldaketak ekiditeko kanpoko paretak, pisuei eusteko gai den hormigoia, tentsioak eta marraskadurak jasateko material egokiak, isolamendua eta energia aurrezteko beste zerak.

Una hartan hiruron etxeak zutik luzaroan iraungo zuelakoan egon nintzen.

Patek atera ninduen zoroaldi hartatik.

-Aurpegi hori, orain ere lainoetan?

Gonbidatuak kesebesenka ari ziren.

Elkar musukatu genuen, eztitasunez.

-Beste bat, beste bat! -eskatu zuten.

Maite zaitut esan genion elkarri.

Pelikuletan bezalaxe.

Hautsa sartu dudan azken eguna huraxe izan zen.

Jatetxeko komunean Patekin batera. Takoietan igoa, buru erdiaren alde ateratzen zidan.

-Azkenengoz -esan nion.

-Bai -esan zidan.

Gezurra.

Hauts hondar batzuk paparrera jausi zitzaizkion, nabarmen lotuz arropa granate haren hantura absolutuan.

Mihiaz kendu nizkion.

Han zer besterik egin genuen ez dut esango.

Eztei-bidaian Greziara joan ginen.

Gazi-goza izan zen.

Atenasen sufritu egin nuen, gozatu beste. Bi egunez.

Gozamena izan zen eraikin klasikoaren aspaldiko edertasunaren itzal urrunetik haiek berreraikitzeke nire ahalegina, eta sufrimendua berriz haien galera tarteka somatizatzea. Hangoa bai hondamena. Patek ez zekien zer gertatzen ari zitzaidan. Ez nion esan.

Bigarren eguerdian, Partenoia ikustetik muinoan behera eguzki-galdatan eginez merkatu nagusiarekin topo egin genuen. Sartu ginen. Pati goragalea egin zitzaion. Berehala.

Hangoa zen hangoa arrain usaina! Hemengo osasun zerbitzuengatik balitz hura aspaldi zegokeen itxita. Eskerrak biharamunen Patmos irlara aldatu ginena. Hartan ere baziren aiurriak baina, gaitz-erdi. Autoa alokatu genuen. Vintage hutsa, zera, hondartzara joateko asmatua omen ziren aspaldiko Citroen Méhari haietako bat.

Harrigarri egin zitzaidan irlan halakoak zein ugariak ziren. Batxilergoa amaitu nuen urteko neguan Parisen gauero ale batzuk erretzen zituztela etorri zitzaidan gogora. Sorterrian bazen bat, eta, halaxe, koadrilan Pariseko erreketak haien segidara jarri ginen, moda gurera iritsirik ez ote zioten hari ere su emango. Politak izango zen berria irakurri izatea. Titularra, "Parisen nola, hala hemen ere".

Patmosekoak Pariseko erreketak haietatik salbatuak ote ziren pentsatu nuen. Utikan baina halako zerak. Pat neukan ondoan, bera gidari.

Hareatza bakartuen bila ekin genion.

Patek kolore ederra hartu zuen. Gorputz osoan. Sabelaldea jadaneko biribiltzen hasia zuen eta, hartan batik bat.

Goizean artean ohean nagoela euri hasi du. Ezin izan diot telefonoko balkoian eskegita zer dagoen kasu egin gabe ezeri ekin.

Bai, estaldurik da etxea. Eta Goiuriren mezurik ez.

Bizkor joan zen Pati eta bion artekoa, bizkorrago Goiurekin izan nuena.

Bizkortasunarena ekuazio matematikoen bidez adierazteko gogoaz sortzen zait.

Bai, den-dena materialen gaitasunez, matematikez, teknikez eta halakoez azaltzeko mania daukat. "Zure mania hori!", Patek beti esaten zidan.

Karrerak halaxe markaturik utzi ninduen, filosofia edo historia edo antropologia ikusi dutenen kasuetan bezalaxe. Zer esan medikuek eta biologoek. Patologiak dira. Nor bere munduko irudien bidez mintzatzen gara denok. Nire aldetik mani patologiko hori ere gainditzeko ahalegina egin behar nuke, Pati galdetu. Hobe beraz esan beharrekoa pasadizo jakin baten bidez adieraztea formulez baino.

Alabaz erditu zenetik harekin berrogeita zortzi ordu egin omen zituzten Goiurik eta seinaren aitak. Hirurak hantxe, klinikako logelan, mediku, erizain eta garbitzaileei izan ezik inori ezertarako sartzan utzi gabe. Ezta gurasoei ere. Emozioari inorekin partekatu gabe eustearren. Intentsitaterik ez galtzarren.

Horraino pasadizoa.

Emozioak osteratzen gasak lakoak dira, gas huts direla ez esatearren. Gasek gordailu egokiak eta tenperatura orekatua eskatzen dituzte. Gordailua lar berotzen bada lehertu egingo da, eta hozten bada hangoa likido bihurtuko da. Bata zein bestea geratu, segurua hondamena.

Esan nahi dudana laburtuz, edozein bikote arruntek sei hilabetean metatu zezakeen gas bolumena, egun bitan metatu zuten haiek. Ez ziren ba bikote arrunta. Hurrengo sei hilabetean, eta hurrengo horren hurrengo urtean metatu eta metatu egin zuten. Halako batean emozioaren gasak gordailua leherrarazi behar ziela ematen omen zuen, Goiurik berak kontatu zidan, klinikako pasadizoaren amaierakotzat.

-Zorionezko hiru urte haietan emozioen emozioz barrutik errementatu behar nuela sentitu nuen.

-Eta? -galde egin nion, iluntzeko azulaz, ilargi moroaz eta izarrez apainduriko sabaiari begira elkarren ondoan ohean etzanda biok.

-Hotz sentitzen hasi nintzen.

Aisialdiko teknikaria da Goiuri, ez dut uste gasen buruzkoan askorik dakienik, ozta-ozta gatzetxoei "Kontuz gasarekin!" esateko. Ba, hozten denean gasa likido egiten da, esan dut, eta, jakina, gas likidotuak espazioa txikiago behar du eta hortaz garraiatzen errazagoa da bestea baino. Hotz mantentzea da gakoa. Gero, nora garraiatu hantxe gorde, tenperatura egokian. Goiurik emozio likidotu hura beste norbaiten gordailura eraman zuen, ez zidan esan norenera.

-Berotu egiten ninduen -horra esan zidan bakarra.

Harekin nahikoa emozioa gas egoerara itzultzeko.

Haatik emozio hura ere likidotu egin zitzaion, baina, beste gordailu batera aldatu, hartan, beroaren berok, berriro gas bihurtu. Egoera aldaketa zenbat aldiz geratu zen, ez dakit. Nago ni azkena izan naizelakoan. Pandemiak ez digu inori halako garraioetarako gehiegizko zirrikiturik utzi.

Dena dela ez dut uste egia osoa zenik bikotekidearekin bat batean hoztu izanarena. Begien bidez niri karranpak eragiten zizkidan legez beste baten bati ere eragingo zizkion eta haren ulertu keinuek tenperatura igo arazi.

Dibortzioak gutxitan izaten dira ez dut esango gozoak, adiskidetsuak. Gurea ez zen izan. Goiurirena ezta ere.

Pat ezkontza eguneko zina hausten hasia zela jakin nuenerako Marcelek hiru urte eta Bertrandek bost zituzten. Egia esan, ez nion txartzat hartu. Astean bitan, astearte eta ostiraletan, bulegotik zuzenean jotzen zuen frantses akademiara. Ostiralekoetan noiz edo noiz, gero eta maizago, egia, berandutu egiten zen.

-Giro ona dugu ikaskideen artean, badakizu. Trago bat hemen, beste bat hor, azkena han, frantsesez hasiz gero gaitz egiten zaigu etxera itzultzea.

Etxera berandu agertzen zen haietan poztasun berezia ekartzen zuela eta, susmoa hartu nion. Eta buruko errotan nerabilen hari buru eman nion.

Hautsa berriro!

-Ostiralen baten edo bestean baino ez. Giroan egotearren. Bestela, beti umeeekin, nahikoa isolaturik bizi gara, ezta?

Hautsena eta trapu zikin asko eskegi genituen batak bestearen kakoan epai-geletan. Batzuk izan ziren.

Hautsez hornitzen zuenarekin liatu zela jakin nuenean hasi zen jausten gure etxea, ermitatik irteteaz bat eraikiko genuela pentsatu nuena. Eraiki, eraiki genuen baina, zutarriak ez ziren antza sendoak, ezta ere isolamendu sistema. Iruzurra materialetan? Sarri gertatzen da eraikuntzan. Horrelakoetan aparejadorea edo parte izan da edo bestela huts egin dut. Esan dut ez naizela aparejadore bikaina. Kostatu zitzaidan eraikinaren gainbeheraz jabetzea.

-Gau pare bateko kontua baino ez da izan -esaten zidan, eraikina salbatzearren.

Sinetsi gura nion.

Alferrik.

Ostiralak gau-beila bilakatu zitzaizkidan.

Guzti-guztiak.

Halako batean gurasoen etxera itzultzeko agindu zidan.

Mindurik, nire sexu gaitasunengatik ote zen galdetzera ausartu nintzen.

-Hori ere tartean -erantzun zidan.

Ordura arteko guztia gorroto bihurtu zen. Esaten den legez, energia ez da sortzen, ezta deuseztatzen ere, transformatu baizik.

Zorionez lehenengo epaiketa hartan epaileak ez zituen deklaratzera deitu gure umeak. Errukitu egin zen. Alabaina, axiomatikoa da: bizkor bideratzen ez den dibortzioa luzaz luzatuko da eta horretara ez da trapu zikinik faltako kakoetan. Hori ere obszeno esan diezaiokegu, bai, begira eraikin berrietan nolakoa ahaleginak lehen fatxada kanpoetan eskegi izaten zirenei toki alternatiboak bilatzearren.

Pat eta biok ostera balkoietako tradiziokoak gara. Behin lotsa galduta, jendaurrean edozer eskegitzekoak.

Halaxe, semeek hamabi txikiak eta hamabost handiak zituztela, epaileak testigantza ematera deitu zituen, Paten abokatuaren eskariz.

Banan bana agertu ziren, txikia lehenik eta bestea bigarrenik.

Etxean izaten nituenean aita on legez tratatzen nituenetz.

-Aita on?

Biei azaldu behar izan zien Paten abokatuak, zera, jatekoak ganorazkoak izaten al ziren, eskolako lanak egiten laguntzen nienetz eta gogoratze hutsarekin gonbit-larria eragiten didaten beste hainbat zitalkeria.

Eta ezetz biek.

Neu ere ez nintzen atzetik geratu. Nire abokatuak hautsena aipatu beharreko zela esan zidan.

-Aurrera! -esan nion.

Bikotekide berriarekin eta semeekin laurak elkarrekin bizi izaten hasi ziren egunetik hautsari berriro ukitu ez diola.

Gezurra, baina, tira.

Erabateko katastrofea.

Ekonomikoa ez ezik, pentsioa pasatu behar nien eta, mentala ere.

Piluletara bidali ninduten.

Birentzako ari naiz sukaldatzen, seme nagusiak, Bertrandek, bizitzera hona etortzea erabaki du eta. Iraganekoak iraganda ere ezin ezetz esan, nahiz eta etortzeko motiboa argitu ez. Amarekin zerbait larria gertatu zaio, edo anaiarekin beharbada. Zein den ez dakidan azken herrialdetik itzuli denean ez du hiru egun egin haren etxean. Zergatia ez dit azaldu, non ibili den zehazki azaldu ez didan legez. Dena dela jakin badakit azken urteotan Italian, Frantzian, Ingalaterran eta nik dakit beste non ibili dena, tartekako lanak eginez

Horietako hizkuntzetan ostalaritza hiztegia baino kaleko birao eta zirtoen bildumatxoak osatu dituelakoan nago. Ez dakidana da ohekoen zerrendarik osatu duen ala ez. Gureak, betidanik, gor-mutuen arteko elkarriketak izan direla esan liteke. Keinu hutsezkoak kasik. Eskerrak bazkaltzera eseri garenean zerbait esan didana.

-Lana eman didate; Frontoi hotelean.



-Hizkuntzei esker?

Buruaz baiezkoa eginez erantzun du.

Errudun sentitzen naiz.

Pandemiak likidotu zuen Goiuri eta bion artekoa.

Etxealdia hurrengo igandean hasiko zela iragarri zuteneko gurasoen etxera aldatu zen, alabarekin batera.

Aspaldi batean arrantzalea izandako aitak eta neskatila portuko lanetan ibilia zen amak etxe ederra zeukaten, terraza eta guzti. Osaba mutilzaharra bai, baina gurasoak nekez itzuliko ziren portuko etxera.

Hartan ariketa egiteko kirol teknifikaturako tresnez hornitu zuen terraza, hura izan zen bai zuhur jokatzeari. Astebeteren buruan agortuak ziren estatikoak eta lekutik mugitu barik korritzeko uhalak.

Ordurako tabu hartaz hausnartzen hasiak ginen. Alaba, haren izena ez zuen inoiz esaten, alaba zen, kito, etxean izaten zenetan ere ni behin edo behin hara joateko aukeraz alegia. Horra emozioen, hau da, gasen indar hedagarriaren ondorio logikoa. Baina zein gasarekin erkatu ahal zen gure emozioena?

Helioa datorkit gogora. Horrexek igoarazten ditu baloi aerostatikoak. Begiratoki apartak, munduari goragotik ikusteko aukera-aukerakoak.

Pandemiarekin gu bion enean alaba sartzeko ala ez sartzeko erabakia iraganeko planen karpetan geratu zen gordeta.

Hori bai, egunero Whatsapp mezu mordoak, telefonoz eta emailez ere komunikatzen ginen arren.

Ez geunden gas faltan, ez horixe.

Lehenagoetan terapiarako eta erreflexiorako tartetzat hartu nuen zigorraldia, hark halaxe hartzen zuela esaten zidan, eta ez zela luzerako izango, eta erabakiko genuela, lasai hartzeko.

Halaxe hartu nuen. Azken aldian marrazkigile kontraturik nindukan estudioak telelana egiteko eskatu zidanez banuen diru iturria segurtaturik, eguneko orduak zertan eman erabaki gabe gainera.

Guk guztiok polito dakigun legez martxoaren erdi-erdian hasi zen askok zibilizazio krisia deritzon aldia.

Etxepetik anbulantziak gau eta egun igarotzen ziren.

Telebista piztuz gero dena bihurtzen zen itomen eta aztoramena.

Hura gabe eta marrazkiak eginez sendatzen ari nintzela sentitu nuen. Ez neukan zer somatizaturik, ez baldin bazen inguruko etxeek erakusten zizkidaten akatsak. Egin nuen horren digestioa ere. Badiot, sendatzen ari nintzen. Marrazten nituen planoak eta sortzen nituen irudiek perfekziora iritsarazten nenbilen, hura zoriona. Ez zorion erabatekoa ostera. Goiurirenganakoa hozten hasi zitzaidan, hari nirenganakoa hein berean.

Hozte prozesuak ez dira berehala antzematekoak izaten. Eraikinetan igartzen da hoberen. Gurean, esaterako. Harri eta zurezkoa denez, urria aldera hasten da inguruko temperatura beherakada geldoa barneratzen, gero oharkabean ia berogailuk piztu beharra nabaritzen du norberak, eta hortik aurrera argiaren fakturak laburbiltzen du egoera; ostera, martxoa-apirila aldera etxea epeltzen hasten eta ekainerako jakin ez beroa nola atera.

Hau guzti hau klima aldaketa ez aipatzearren. Atzera bueltarik ez daukana izatekotan ere, eta ez dakit hala denetz, itsasoak portua ez du bihar goizaldean tragatuko. Ustez behintzat. Prozesuak dira. Apirilean jabetu nintzen erabat gu bion arteko hoztearenaz.

Mezuak bakanduz joan ziren, atzeratuz deiak, protokolozkoak bilakatzen emailen edukiak. Horietan denetan ostera Goiuri zoriontsu bizi zela igartzen nuen. Azken batean hantxe zeukan familia izatearen emozioa. Emozio berria, beste erabateko gasa beste gordailu batean. Gurea likidotua zen.

Itxialdia amaitutzat jo zutenean bitan izan ginen elkarrekin.

Porrota.

Egoeraren berri-edo ematen zuten giza-erroboten ahots mekanikoek gaztetxoek ezeren beldurrik zertan izan igartzen zuten arren, alaba kutsatu zitzaion.

Izua. Izu librea, hara eta hona hegan. Eta jendearen gogoia estatistiketako gailurretik esperantzaren haranera, gora eta behera, behera eta gora. Gabonetan izuak goia jo zuen. Urte zaharreko afaria bakar-bakarrik egin nuen.

Ez zegoen zer eginik.

Patek etxetik joateko agindu zidanean esan zizkidan azken lau hitzekin esanda, C'est fini gure artekoa.

Uda aurrera doa, eta Goiuriren berririk ez.

Whatsappetara itzuli naiz.

Horien bidez etxe erdi jausia konpontzen ari direla jakin dut, norbait etengabe ari delako argazkiak bidaltzen. Ez dut telefono zenbakia ezagutzen, eta erabiltzaileak ezizena darabil; Portuko Lamia. Goiuri bera ote da, niri inoiz eman ez didan telefono zenbaki batetik? Udalaren kontrako kalakak eta hotelaren jabeari buruzkoak etengabeak dira.

Azken urte erdian hilik egon den etxearen konpontzea eta hotelaren fatxada eta teilatua berritzea buruturik direla iragarri du Whatsappean argazkien bidez Portuko Lamiak. Hotelari dagokionez arauz kanpokoak konpondu gabe amaitu dute. Balkoien gehiegizko tamaina erakusten duten argazkiak dira ugarienak. Bost niri dagoeneko horrek. Zertan ote da orain itsaso koloreko logela? Goiurik berriro kolore horixe eman ote dio? Ilargi moroa eta izarrekin apaindu ote du.

Desioaren gasak itotzen nago.

Bertrand antza pozik dabil hotelean, nahiz eta tarteka gauak lanean eman behar. Elkarrekin hitz egiten hasiak gara. Amaren urtebetetzea bihar dela gogorazi dit.

-Ikustera joango zara?

-Ez.

Zorionak, Pat.

Gabon zaharra. Badoa 2021a.

Bisigua afaldu dugu semeak eta biok isiletan kasik. Horren ostean izozkia, neuk egina, eta xanpaina. Horretantxe hitz egin du Bertrandek.

-Gaupasa egiteko asmoa daukagu -pluralean esan du.

-Hotelean?

Ez dit erantzun.

-Joan aurretik egizu harrikoa.

Egin egin du.

Bada bizi garena ospatzeko sasoia. Kalera noa.

Urteko lehen goiza. Goiuriren besoetan kateaturik itzartu naiz. Logela berrituan kolorea betikoa da. Ilargi moroaren ordeztu ilargi erdia dago. Ilgoran ote goaz? Eta hortxe dira izarrek ere. Faltan bota ditut aspaldiko arrakalak.